



ANIMA ZAITEZ!!!

HEZKIDETZA LOGO LEHIAKETA

HELBURUA

Instituturako **HEZKIDETZA LOGOA** behar dugu eta horretarako lehiaketa bat antolatu dugu. Parte hartu nahi baduzu, hauexek dira eman beharreko pausuak.

PARTE-HARTZAILEAK

Abadiño BHI-ko maila guztietako ikasleak.

PROPOSAMENA

- Diseinua originala eta argitaragabea izan behar da.
- Izena ematean, logotipoa norbere kreatibitatearen fruitu izan dela eta ez dela beste inoren eskubiderik urratu ziurtatu beharko da.
- Kolorea: **morea nagusituko da**. Beltza eta zuria ere erabili ahal dira.
- Testua: ezinbestekoa da **Hezkidetza** eta **Abadiño BHI** hitzak agertzea.
- Logoa digitala bada, **PDF, PNG edo JPG** formatuan egon beharko da, gutxienez 200 X 200 pixel bereizmenarekin.
Eskuz egindakoak **A4 formatuan** aurkeztuko dira (folio edo kartulina zuria).
- Partaide bakoitzak logotipoaren zergatiaren inguruko azalpen bat bateratu beharko du.

DATAK ETA NON AURKEZTU

Otsailaren 25a izango da lana aurkezteko azken eguna. Eskuz egiten baduzu, Candelak jasoko dizu eta atezaintzan dagoen hezkidetza kutxan gordeko du.

Digitala bada, helbide honetara bidali behar duzu:

hezkidetza@abadiñoinsti.net



IES ABADIÑO BHI

EPAIMAHAIA

Hezkidetza batzordea (ikasle eta irakasle), zuzendaritza, plastika eta IKT irakasleak.

- Epaimahaikideek ezingo dute lehiaketa honetan proposamenik aurkeztu.
- Epaimahaiak lehiaketa bete gabe geratu dela esan dezake eta lehiaketa edo oinarri berriak egin eta lan berriak aurkeztu izan ahalko dira.
- Martxoko lehenengo astean irabazlearen izena jakinaraziko da.

SARIA

Irabazleak 50 euroko txartela eskuratuko du Elkar, Folder, Decathlon, Forum edo herriko denda batean gastatzeko.(irabazlearekin adostuko da)

JABETZA ESKUBIDEAK

Irabazleak lehiaketara aurkeztutako lanaren eskubide guztiak Abadiño BHI-k izango ditu.